**EUSKADIKO MAHAI TENIS FEDERAKUNTZA / FEDERACIÓN VASCA DE TENIS DE MESA**
Edificio CPT – Avda. de los Chopos, s/n / 48991 Getxo (Bizkaia)
Tlfno.: (94) 623.26.89 / Fax : (94) 620.29.05
E-mail: tenisdemesa@euskalkirola.eus / Web: www.mahaitenis.com

| Zirkular Zenbakia<br>Circular Número: | 32-2024/2025 | 2025eko abuztuak 23<br>23 de agosto de 2025 |
|---|---|---|

# Euskadiko Klub Kopa 2025/2026
# Copa de Euskadi de Clubes 2025/2026

Irailaren 6an, larunbata, Euskadiko Klub Kopa jokatuko da Abadiñon (Bizkaia). Ohiko jokalekua izango da, hots, C.T.M. Abadiñoren egoitzan: Matienako Udal Pilotalekua, Solaguren kalea z/g, 48220 Abadiño (Bizkaia). Txapelketa goizez eta arratsaldez jokatuko da.

**Ordutegia**
Lehiaketa 9:00etan hasiko da. Joko eremura 8:30etik aurrera sartu ahal izango da. Antolakuntzak, inolaz ere, ez du pilotarik jarriko lehiaketa aurreko beroketa aldian.

Aurreikusita dago txapelketa bi saiotan jokatzea, bazkaltzeko behar besteko etenaldiarekin. Hala ere, hori aldatu liteke azken izen-emate kopuruaren edota lehiaketaren garapenaren arabera.

**Izen-ematea:**
Talde bakoitzeko izen-emate kuota 30,00 eurokoa izango da.

Izen-emateak abuztuaren 31 baino lehen egin beharko dira (23:59ak baino lehen) Euskadiko Federazioaren web sistemaren bidez. Behin epea amaituta, ez da izen-ematerik onartuko.

**Izen-emateen zenbatekoa**, zeina Sistemak adieraziko duen, **Euskal Mahai Tenis Federakuntzaren (EMTF) kontu korrontean** ordaindu beharko da: Laboral Kutxa – **IBAN: ES75 3035 0014 6101 4007 1528**. Ordainketa egitean, kontzeptu gisa **klubaren izena eta "Euskadiko Klub Kopa"** adierazi beharko dira.

**Pilota:**
Txapelketa DHS DJ40+ 3*** pilota zuriarekin jokatuko da.

**Lehiaketa sistema:**
Txapelketa Munduko Kopako sistemaren arabera jokatuko da, hurrengo partida-hurrenkeran:

**| A-X | B-Y | C-Z | A-Y | B-X |**

Lehiaketa bost (5) partidura arte jokatuko da, eta lehenengo hiru (3) garaipen lortzen dituen taldea izango da garailea. Talde batek hiru (3) partidu irabaztean, ez da partidu gehiago jokatuko.

Taldeak gutxienez hiru jokalarik osatu beharko dituzte; ez da onartuko jokalari kopuru txikiagoa duten taldeen izen-ematerik. Alineatutako jokalarien artean, bi jokalarik bi banakako jokatu ahal izango dituzte, eta beste jokalari batek banakako bakarra.

Partida guztiak bost (5) jokora arte jokatuko dira. Puntuetan berdinketa gertatuz gero, Espainiako Mahai-Tenis Federakuntzaren indarreko Lehiaketa Araudia aplikatuko da.

Txapelketa jokatzeko gutxienez sei (6) taldek parte hartu beharko dute. Gutxienekora iristen ez bada, txapelketa bertan behera utziko da.

Txapelketari eragin diezaiokeen edozein aldaketa aldez aurretik jakinaraziko da, baja posibleak eta/edo izen-emateetan aldaketak egiteko. Horrela, 24 orduko epea igaro ondoren, izen-emate horiek behin betikotzat hartuko dira.

**Lehen Fasea –** Taldeak multzotan banatuko dira, ahal dela 3 talde multzo bakoitzeko. Taldeen banaketa "serpiente atenuado" sistemaren bidez egingo da. Lehiaketako Epaile Nagusiak erabakiko du zenbat talde pasako diren hurrengo fasera. Multzoak osatzean, ahal den neurrian, klub bereko taldeak multzo berean egon ez daitezen ahaleginduko gara.

**Bigarren Fasea –** Kanporaketa zuzenaren bidez jokatuko da. Aurkariak zozketaz erabakiko dira, lehen fasean lortutako postuen arabera.

**Lehiaketaren garapena:**
Izen-emate kopuruaren ondorioz, epaile nagusiak bazkariaren atsedenaldia kentzea erabakiko balu, jardunaldia etenik gabe jokatuko litzateke. Hala ere, lehiaketa egokituko da parte-hartzaile guztiek bazkaltzeko denbora egokia izan dezaten.

**Sailkapen-buruak:**
Taldeen sailkapen-buruak eskuragarri dagoen azken Estatuko Rankingean taldeko jokalarien puntuen baturaren arabera zehaztuko dira.

**Bajak eta aldaketak:**
Arrazoi justifikatu baten ondorioz gertatutako bajak eta aldaketak kontuan hartuko dira, eta, horrenbestez, dagokion izen-ematearen diru-itzulketa egingo da, baldin eta txapelketaren ordutegiak eta zozketak argitaratu aurretik jakinarazten badira. Informazio hori behin bidalita, ez da aldaketarik onartuko, ezta inolako diru-itzulketarik egingo ere.

**Arbitrajeak:**
Txapelketan epaile nagusi bat egongo da, eta bi (2) epaile federatu izango dira lehiaketarako. Talde-fasean, lehiaketa-sistemak ezarriko du talde bakoitzeko ligaxkako partiden arbitraje-ordena. Txapelketan parte hartzen duten jokalari guztiak epaile nagusiaren esanetara egongo dira, eta hark partiduren bat arbitra dezaten eskatu ahal izango die, lehiaketa behar bezala burutu dadin. Jokalariak arbitratzeari uko egingo balio, antolakuntzak zigortzeko arrazoitzat har lezake, eta, muturreko kasuan, txapelketatik kanporatu.

**Trofeoak:**
Lehen 3 sailkatuentzako trofeoak banatuko dira, baita antolatzaileak eskain ditzakeen bestelako oroigarriak ere.

---

El próximo 6 de Septiembre, sábado, se celebrará la Kopa Euskadi de Clubes en Abadiño (Bizkaia). El local de juego es el habitual del C.T.M. Abadiño,Frontón Municipal de Matiena, Solaguren Kalea, s/nº, 48220 – Abadiño (Bizkaia), en sesiones de mañana y tarde.

**Horarios**
La competición comenzará a las **9:00 h.** Se podrá acceder al recinto de juego a partir de las **8:30 h.** La organización en ningún caso proporcionará pelotas en el periodo de calentamiento previo a la competición.

La previsión del campeonato es que la jornada se dispute en dos sesiones, con un tiempo adecuado de pausa para la comida, si bien esto puede verse alterado por el número de inscripciones definitivas, así como por el desarrollo de la competición.

**Inscripciones**
La cuota de inscripción por equipo será de **30,00 euros**.

Las inscripciones serán realizadas antes del **31 de agosto a las 23:59** a través del sistema Web de la Federación Vasca. **No se aceptarán inscripciones tras el cierre de plazo.**

El **pago de las inscripciones**, cuyo importe será facilitado por el Sistema, se hará efectivo en **la cuenta de la Federación Vasca de Tenis de Mesa (FVTM),** en Laboral Kutxa **IBAN ES75 3035 0014 6101 4007 1528,** indicando en el concepto el **nombre del Club – Kopa Euskadi Clubes**.

**Pelota**
La competición se disputará con la pelota **DHS DJ40+ 3*** blanca**.

**Sistema de competición**

La competición se disputará bajo el sistema Copa del Mundo con el orden de juego siguiente:

**| A-X | B-Y | C-Z | A-Y | B-X |**

Se juega al mejor de cinco (5) partidos y el equipo que primero consiga ganar tres (3) partidos será el vencedor, no debiéndose disputar más partidos una vez determinado el equipo ganador.

El equipo estará formado por un mínimo de tres jugadores, no admitiéndose la inscripción de equipos con un número de jugadores inferior a tres. De los jugadores alineados en el partido 2 de ellos podrán jugar dos individuales y uno de ellos tan solo jugará un individual.

Los partidos se disputarán al mejor de cinco (5) juegos.

En caso de empate a puntos se aplicará el Reglamento de Competiciones vigente de la Federación Española de Tenis de Mesa.

Para disputar la competición se requerirá un **mínimo de 6 participantes**. Si no se llegase al mínimo, se procederá con la toma de la decisión de suspensión del campeonato.

Cualquier cambio que pudiera afectar al campeonato se comunicaría con anterioridad para posibles bajas y/o modificaciones en las inscripciones, para que una vez transcurrido un plazo de 24h, éstas se tomarán como inscripciones definitivas.

**Primera Fase** – Se dividirá en grupos preferiblemente de 3 equipos. La distribución de equipos en cada Grupo se realizará por el sistema de serpiente atenuado. El Juez Árbitro de la competición determinará el número de equipos que pasan a la siguiente fase. **Para la composición de los Grupos se tendrá en cuenta, en la medida de lo posible, la separación de los equipos correspondientes al mismo Club.**

**Segunda Fase** – Se disputará por eliminatoria directa. Los emparejamientos se establecerán por sorteo en función de los puestos obtenidos en la primera fase.

**Desarrollo competición:**
Si debido al número de inscripciones el juez árbitro decidiera eliminar la pausa para la comida, se jugaría la jornada completa sin descanso, adaptando la competición de forma que todas las personas participantes dispongan de un tiempo prudencial para la comida.

**Cabezas de serie**
Los equipos cabezas de serie se establecerán en función de la suma de los puntos de los jugadores del equipo en el último Ranking Nacional disponible.

**Bajas y cambios**
Las bajas y cambios ocasionados por un motivo justificado serán tenidas en cuenta y, consecuentemente, se producirá el reembolso de la inscripción correspondiente, siempre que sean comunicadas con anterioridad a la publicación de los horarios y sorteos del campeonato. Una vez sea distribuida esta información, ya no se aceptará ninguna modificación ni procederá reembolso alguno

**EUSKADIKO MAHAI TENIS FEDERAKUNTZA / FEDERACIÓN VASCA DE TENIS DE MESA**
Edificio CPT – Avda. de los Chopos, s/n / 48991 Getxo (Bizkaia)
Tlfno.: (94) 623.26.89 / Fax : (94) 620.29.05
E-mail: tenisdemesa@euskalkirola.eus / Web: www.mahaitenis.com

**Arbitrajes**
Habrá un Juez Árbitro en la competición y se dispondrá de dos (2) árbitros colegiados para la competición. Durante la fase de grupos el sistema de competición establece el orden de arbitraje de los partidos de la liguilla de cada grupo **Tod@s l@s jugador@s participantes en el campeonato estarán a disposición del Juez Árbitro**, que les podrá requerir para arbitrar algún encuentro con el fin de llevar a buen término la competición. La negativa por parte de l@s jugador@s a la realización de estos arbitrajes podrá ser considerada motivo de sanción por parte de la organización, pudiendo llegar a la exclusión de la competición.

**Trofeos**
Se otorgarán trofeos a los 3 primeros clasificados, así como cualquier otro presente que pueda ofrecer el organizador.